



Sortze Garbiko Andre Mariaren

eta

Gonzagatar Luis Santuaren

Laguntaldeko

Euskaldun mutillak

gorde bear duten

Legia



M-2889

R. 34820

AZPEITIYAN

Martinez-tarren moldiztegiyan

1919.-garren urtean

H. 2889

R. 34820

ATV

18327

IHS

Sortze Garbiko Andre Mariaren

eta

Gonzagatar Luis Santuaren

LAGUNTALDEKO

EUSKALDUN MUTILLAK

GORDE BEAR DUTEN LEGIA

onelako Laguntalde guztiyei,

Erromatik,

1910 - garren urtian emanako legetik

BEAR BEARREKO ZUZENBIDIAK ARTUTA


ATERATAKUA



Vitoriko Obispo jaunaren baimenarekin



Errukizko Ama ta gure Erregiña,
euskaldun mutill guztiok zure kontura
betiko artu gaitzatzu.



I.

Laguntalde aben izatea ta bitzta

Eliz ama Santuak, Jesukristoren sayetzetik gurutzian jayotako gure Ama gozu onek, eta Jesukristoren ordez lurrian, Adanen seme-alaba guztiyak alegin guztiz zeruratzeko bizi dan Ama zintzu onek, ikusten du ondo, Adanen seme-alabetan, gaztiak badira ere geyena baliyo dutenak, beste aldetik, beren argaltasuna alakua dalako, ta munduaren lasaikeria ainbestekua dalako, gaztiak dirala ere, zerurako bidia errezena galtzen dutenak.

Argatik Eliz Ama santuak, gazietañan, bere semerik maitienetan bezela dauzka arretarik biziyenak jarrita. Argatik ere, zapelaitzaren atzaparretatik, lokak egazpiyan txitak bezela, inpernuko suge lizun eta otsozarretatik, gaztiak gordetzearen, biltzen ditu ontarako izan liteken gordelekurik sigurubenian eta atsegüenian, Ama Birjiñaren itzalpean eta babesean.

Gazteak onela gordetzea da, Birjiña Ama Mariaren banderapeko Laguntalde aben lenengo lana, au bakarra ez bada ere Laguntalde aben lan guztia.

II.

Laguntalde abei guztiyei, Erromatik, 1910-garren urtian, eman zitzayen Legeko lenengo zuzenbidiak dionez, Laguntalde aben asmo ta iza-te guztiya da, biotzeko aldan berotasunik, sendotasunik eta leyaltasunik biziarenaz Birjiña Ama Maria maitatzia.

Birjiña Ama Mariaganako maitetasun onegatik eta Ama Birjiña Mariaren beraren laguntzaz, Laguntalde abetako mutill guztiyak egiyetaiko Kristauak izan ditezen: lenengo, beren animak garbi gordetzen eta santu egiten; eta gero munduba sal-

batzeko lanian, Jesukristori eta Eliza Katolikari alduten guztiya laguntzen egiñal guztiyan sayatuko diranak.

Laguntalde aben izate osua bi itzetan ederki adierazi zuben X Pio santubak 1904-garren urtian, Agoraren 7-an, Itali guztiyan zabalduta dauden Laguntalde abetako asko, Erroman, Batzar aundi bat egiñaz bilduta zeudela, X Pio santubagana azaldu ziranian.

Ara, X Pio santubak zer esan zi-
yen: • *zubekin ni biziro poztutzen naiz, iduritzen zait eta zubetan ikusten detala, egiyazko Kristauen talda autuba, Birji-ña Ama Mariaren begiratu gozuaren azpiyan eta Jaungoiko guzialdunaren laguntzaz lanik zailletarako beti prest dagon talda leyatsuba.*• (E. Mullan, S. J. "La Congregación Mariana" (282) (1912)

III.

Ama Birjiña onela bere Begirale ta Erregintzat artu zuben gaztien lenengo Laguntaldea, 1563-garren urtian, Erroman, mutill gazte ikaslienzat, jesuitak zuten Ikastetxe batian sortu ta moldatu zan; eta lenengo eun urtietan, mutill gaztienak bakarrik geyenian, edo biñipin beti gizasemezeko utsenak izandu ziran Laguntalde abek, emakumietara gero zabaldu baziran ere.

Emendik igarriko dute mutillak, Laguntalde abek ez bakarrik ez dirala emakumientzat asmatutako gauzak, baizik urtietan eta urtietan, Eli-

za Katolikan bururatu etzitzayola iñori mutillak eta gizasemiak ezbada iñork bestek Laguntalde abetan sartu bear zubenik. Eta egiya esan, Birjiña Ama Mariaren banderapian dau-den, Jesukristoren aldeko gudari-taldak badira Laguntalde abek, diran bezela; nor abetan sartuko zan mutill gaztiak bañon egokiyago?

IV.

Laguntalde abek sortu ta beriala arritzeko eran Eliza Katolika guztiyan zabaldu ziran, batezere Europan eta Amerikan. Jakitia besterik ez dago, Laguntalde abek sortu Erroman, esan degun bezela 1563-garren urtian eta andik berrogei urtera baño len, 1600-garren urtian, bazeudela onelako Laguntaldeak, eta ederrak eta ugariyak baita Perun eta Chilen ere. Eta orain askok sinistu naiko ez lutekena, Laguntalde abetan zeudela erriyetako gazterik argiyenak, bikaiñenak, eta aberatsenak. Baziran **American** Laguntalde abetakuak,

baita indiyo utsenak ere bai. ¿Nola-kuak ordia?

Abetako bat zan Perun, Juli esaten zitzayon erriyan, seireun indiyo beregan zeuzkana. Abek, larunbatero meza lenengo, ta ondoren egiten zitzayen itzaldiya danak batera arreta aundiz enzuten emen zuten. Ikustekuak ziran noski indiyo abek egiten zituzten beren Laguntaldeko eliz-pestak. Orduko Kondairatzalliak diotenez, eliz-pesta aben aldian europatarren eliz-pestak aitatzeko ez emen ziran. Ango kantubak eta ango soñubak, oso dira ta indiyo ayek musikalari gogozkuak eta artarakuak. Ango zillarraren eta ango urriaren ugaria elizako jantzi ta tresenetan.

Laguntaldeko jai aundiyetan elizatik ateratakuan, erriko, ta inguru betako beartsu guztiyei, erriko plazan

jaten ematen ziyen janari ona ta nai-kua. Egun abetako batian, 1603-garren urteko ta Abustuko Andre Mari egunian jaten eman ondo bi milla beartsuri eta gelditu emen zan naiko zer jana beste bi millaentzako. (Hist. de la Compañía de Jesús. Astrain S. J. IV, 787).

V.

Laguntalde abek lenengo berreun urtietan, bai Europan eta bai Amerikan, erri aundiyetan biñipin, etziran bakoitza nolanai edozeiñ eratako jendez moldatubak izaten; baizik ikasliak, soldadu ta gudariak, aben agintariak, langilliak, arrantzaliak, letradubak, aundizkiyak eta onelaxe beste sailletakuak, beren Laguntaldeakerezian izaten zituzten. Letradu utseña izandu zan izen aundikua Sevillan: arrantzale ta itsasoko gizonena ere bai galanta ta ederra Napolesen: aundizki utsenak, erregezkuak ere artean zituztela baziran beruak Vienan,

Lisboan eta Madriden: gudari utse-nak ere bai Alemaniyan, Portugalen, eta Espaniyan.

Laguntalde abetako uztarik ederra da, Laguntalde abetan ibilitako gaztiak eta Eliza Katolikak oraiñ al-darietan dauzkanak ogei ta geyago badirala. Baña, Laguntalde abek sortu ziranetik beriala alde guztiyetara onela zabaldurik; zeñek zenbatu gaztiak, bestela galduko ziranak eta Laguntalde abetan zeruratu diranak?

VI.

Bada oraindik, Laguntalde abek beren legian zintzo ibiltziakin beste gabe, erakarri duten gauza bat ona, ta onenetakua: Laguntalde abek ezin kontala erri Kristau-fedian eta Kristau-legian berotu ta indartu dituztela. XIII Leon Aita santubak ziyon, Komuniyo santuba sarritan artzeko oitura erriyetan sartu dedin, Laguntalde abek asko laguntzen dutela (Nihil adeo. Illbeltz. 8. 1889). Ta egiya esateko, badiruri gaztien onelako Laguntalde zintzobat dan erriya, naita naiez bezela, Kristau-legian zuzena ta leyala izan biar dubela. Jaungoi-

kuakiko ta Elizakiko lanetan, erri batian mutill gaztiak erabat aurretik dijuazenian, erri artan atzera gelditzia nor ez da lotsatuko?

VII.

Laguntalde abek Euskalerriyan

Laguntalde abek gure Euskalerriyan moldatzia, zerbait sayatu ezkerro, oraindik gauza erreza da, gure erriyetan oraindik mutill gazte asko ta asko onak daudelako: beste aldetik, Laguntalde abek gure erriyetan lenbailen moldatzia bear-bearreko gauza da, inpernubak, gaztien kontra batzere dakarren abiada nabarben oñtan, gure gazte abek eta abekin gure erriyak osoro galdu bear ez badute.

Onetarako argitaratzen degu, Lagun-

talde abetako euskaldun mutillak gor-de bear duten Legia, ez guk asmatuba, baizik orain berriro, 1910-garren ur-tian, Erromatik, Eliza Katolikan di-ran onelako Laguntalde guztiyei, e-mandako Legetik, bear-bearreneko zu-zenbidiak artuta, ateratako Legia.

VIII.

Bost gauza agindu ta bost gauza eskeintzen dizkiye Erromatik etorritako Lege onek Laguntalde abetan sartu nai duten mutill guztiyei.

Erromatik etorritako Lege onek Laguntalde abetan dauden mutill guztiyei, agintzen dizkiyen bost gauzak dira:

Lenengua: Egunero albalitz meza enzun; eta gutxiyenaz biñipin, egunero goizian eta arratsian Gonzagatar Luis santuari Aita gure bat, eta Ama Maria Birjiñari iru Abe-Mari errezzatu; ta baita ere iñola albada egun bitartian Errosario santua errezzatu:

Bigarrena: Jayero albalitz, konfesiua egin ta komuniyo santua artu; ta gutxiyenaz biñipin meza, albada meza nagusiya enzun, edo Laguntaldeak bereziko mezarak badu, Laguntaldeko meza:

Irugarrena: Illero, iñola ere utzi gabe batere aldala, Laguntalde guztiyak batera duben komuniyo santura ta elizfunziyora etorri, garaiz ta arretaz aurretik konfesio on bat eginta:

Haugarrena: Laguntalde guztiko buru ta begirale daudenak, Laguntalde guztiyaren izenean zeredozer eginbear erabakitzentzen dutenian, Laguntalde guztiyak aldan zintzubena ta leyalena jarraitu:

Bostgarrena: Agiriko pekatubetatik eta pekaturako bide jakiñetatik gorroto guztiz aldendu: Abetakuak dira: birauak, izketa lasayak, irakur-

tze ta ikuskari lizunetako paperak,
dantza lotubak, batzar nastubak, gau-
bian beranduko egoera eta ibillerak.

IX.

Oraiñ ipiñitako bost aginte oyek,
Laguntalde aben Lege osotik artutako
bear-bearrekuak diralako, abek ain-
tzakotzat artzen ez ditubena, ezin
izan iñola Laguntalde abetakua.

X.

Erromatik etorritako Lege onek Laguntalde abetan dauden mutill guztiyei ematen dizkiyen bost gauzak, dira:

- 1) Barkamen osua Laguntaldean sartzerauan:
- 2) Barkamen osua Laguntaldekuak batera komuniyo santuba artzen duten guztiyan:
- 3) Barkamen osua bakarka komuniyo santua artuta ere, Jesukristo gure Jaunaren eta Birjiña Ama Mariaren izeneko jai-egun guztiyetan eta Gonzagatar Luis santuaren jai-egunian:

4) Barkamen osua, gaxo daudenian eta batezere eriyotzako orduban:

5) Azkenik, Laguntalde abetan dau-den mutill guztiyei, bizitza guztirako ta batezere eriyotzako ordurako ematen zaye Birjiña Ama Mariaren bere-xiko maitetasuna ta laguntza.

Irabazi abek danak irixteko naita-naiezku da, Laguntalde abek, Laguntalde abetako guztiyetako buru ta nagusi dan Erromako Laguntalde-akin bat egitea. Erromako Laguntalde onekin beste Laguntalde abek bat egitia ez da lan zailla: baizik erri-aldeko Obispo jaunaren bidez edo Jesusen Kompañi guztiko buru danaren bidez errez egiten dan lana.

XI.

**Laguntalde abetan
sartzera-kuan egin biar dana**

Laguntalde abetan sartzeko, izan bear du lenengo, gai ona: au da, bere aurreko bizieratik, Laguntalde aben Legia gordeko dubenaren uste osua ematen duben mutill gaztia.

Laguntalde abetan sartzeko egunera prestatu bear du aurretik konfesiyo on bat egiñaz: eta ondo badator egin beza era batera bizitza guztiko konfesiyua.

(La Congregación Mariana. Mullan S. J. 143)

Gero, Laguntaldeak bere komu-

niyua duben jai aundiko egun batian, Laguntalde guztiyaren aurrian, Laguntaldean sartzera dijuazenak Birjiña Ama Mariari egin bear diote eskeintz'au:

*S*aungoikuaren Ama ta Birjiña Maria
guztiz santua, nik gaur artzen zaitut
nere Begiraletzat, nere Jabetzat, nere Erre-
gintzat; eta aldetan sendotasunik aundiye-
naz ematen dizut itza, etzaitutala sekula
utziko, ez detala egingo ta esango gauza-
rik zuri naigabia emango dizunik, eta nere
eskuban dagonez, ez detala utziko ere,
iñork ezeregin dezan zure izen onaren kal-
tian.

*Artu nazazu arren zure betiko serbitza-
ri ta mendekotzat. Lagundu nazazu nere
bizitzako gorabera guztiyetan eta ez arren
ni utzi eriotzako orduban. Amen.*

Laguntaldeko Gidari dan apaiz jaunak erantzuten du:

Onetarako detan eskubidez, erri one-
tan zuzen ipiñita dagon Sortze Gar-
biko Andre Mariaren eta Gonzagatar Luis
santuaren Laguntaldean nik artzen zaituz-
tet, eta Laguntalde aben guztiyen Buru
dan Erromako Laguntalde nagusiyari ta
Laguntalde oni emandako barkamen eta
irabazi guztiyetan barrena sartzen zaituz-
tet.

Gure Laguntalde onen erreskaretan nik
orain idatziko ditutan bezela, betiko zeru-
ban bizi bear dutenen erreskaretan ere, zu-
ben izenak idatzita arkitu ditezela. Amen.

(Mullan S. J. «La Congregación Maria-
na» 288).

XII.

Laguntalde abetako mutillak Bir-
jiña Ama Mariari goizero ta arratsero
errezzatu bear dizkaten iru Abemarien
urretik esateko otoitza:

*N*ere Ama, nere Jabea, ni osoro eskein-
tzen natzaizu; ta zuria naizela ager-
tzeko, ematen dizkitzut egun onetan nere
begiyak, nere belarriyak, nere mingaña, ne-
re biotza; itz batian ni naizen guztiya. Zu-
ria naizen ezkero, zure gauza bezela begi-
ratu ta gorde nazazu, Ama guztiz ona.



Gonzagatar Luis Santua, eskatu go-
gotik Jaunari, euskaldun mutill guztiok
zure antzekuak izan gaitezen.

A. M. D. G.

